

Bilboko feria!

Ponce, Padilla eta El Juli bueltatuko dira Vista Alegre

Ohitura den legez, Aste Nagusiak zezenketak ekarriko ditu Bilbora. Abuztuaren 17tik 25era bitartean, arratsaldeko 18:00etan, urteroko zita izango dute zezenketa zaleek Vista Alegren. Lehenengo egunean, Sanchez-Cobaleda ganadutegiaren zezenei aurre egin beharko diete Fermin Bohorquez, Luis Domercq eta Pablo Hermoso de Mendoza toreatzaileek.

Hilaren 18an, berriz, Herederos de D. Jose Cebada Gagoren zezenak toreatuko dituzte Jose Ignacio Ramos, Pepin Liria eta Fernando Robleño zezen-hiltzaileek.

Asteleheneko egitarau ederak aurrez aurre ipiniko ditu Alcurucenen zezenak eta izen handiko toreatzaileak; hala nola, Enrique Ponce, Juan Serrano *Finito de Córdoba* eta Iker Lara arabarra. Azken toreatzaile horrek alternatiba hartuko du egun horretan Bilboko zezen-plazan.

Ekainean izandako ezbeharra gaintu ondoren, bi arratsaldetan izango da Enrique Ponce Vista Alegren. Beraz, martitzenean ere ikusi ahal izango dute zaleek, Antonio Ferrera eta Antonio Barrera zezen-hiltzaileekin batera; Torrealta ganadutegiaren egunean, alegia.

Julian Lopez *El Juli* toreatzaile gaztea hiru arratsez arituko da Bilboko zezen-plazan. Eguaztenean, Fernandez Meca eta Eugenio de Mora toreatzaile

'EL JULI'

Julian Lopez 'El Juli' gazteak hiru arratsalde emango ditu Bilboko zezen-plazan

leekin bat, Victorino Martinen ganadutegiari aurre egingo dio.

Eguenean, hilak 22, Manuel Caballero eta Javier Valverde toreatzaileekin izango da *El Juli*, Javier Perez Taberneroren zezenak toreatzen. Hurrengo egunean, aguresango die Julian Lopez gazteak Bilboko zaleei, Eduardo Davila Miura eta Miguel Abellan toreatzaile ospetsuekin, Torrestrella ganadutegiaren txandan.

Dolores Agirreren zezenak zapatuan

Halaber, zapatuan, Dolores Agirre bizkaitarraren zezenak izango dira Bilbon, Luis Miguel Encabok, Antonio Ferrerak eta David Fandila *El Fandi*-k torea ditzaten.

Aurtengo Aste Nagusiaren azken zezenketa domekan izango da. Herederos de D. Eduardo Miura ganadutegi ospetsuaren zezenak edukiko dituzte Eulalio Lopez *El Zotoluco*, Juan Jose Padilla eta Eduardo Davila Miura toreatzaileek.



Ospe handiko toreatzaileak ikusteko aukera izango dute zezenketa zaleek, egunero, Vista Alegren. Argazkian, Padilla.



Izarrekin norgehiagoka

XII. Bilbao Hiria Lehiaketa eta erakusketa saioak gaueko 22:30ean izango dira; igandean, hilaren 25ean, berriz, gaueko 23:00etatik aurrera.

su festak

ABUZTUAK 17, larunbata

22:30 Lehiaketa. Turis piroteknia (Valentzia).

ABUZTUAK 18, domeka

22:30 Erakusketa. Pablo piroteknia (Madril).

ABUZTUAK 19, astelehena

22:30 Lehiaketa. Igual piroteknia (Bartzelona).

ABUZTUAK 20, martitzena

22:30 Erakusketa. Caballer piroteknia (Valentzia).

ABUZTUAK 21, eguaztena

22:30 Lehiaketa. Pagano (Italia).

ABUZTUAK 22, eguena

22:30 Erakusketa. Xaraiva Piroteknia (Ourense).

ABUZTUAK 23, barikua

22:30 Lehiaketa. Parente (Italia).

ABUZTUAK 24, zapatua

22:30 Erakusketa. Astondoa piroteknia (Areatza, Bizkaia).

ABUZTUAK 25, domeka

23:00 Lehiaketa. Martarello (Italia).

CAPITOL ANTZOKIA

Abuztuaren 21etik irailaren 1a arte
EL PRINCIPE Y LA CORISTA
Terence Rattigan-ena
Emilio Gutiérrez Caba eta María Adanez-ekin



EMANALDIAK: begiratu ikuskizunen sailean

LEHIATILAKO SALMENTA AURRERATUA: 944 232 752an
eta 944 310 310ren bitartez, edo
BBK-ko Zerbitzu Anitzeko Kutxetan.

Lehiatilako orduak: 11:30etik 13:30era eta
17:30etik aurrera



uda honetan
murgil antzerkian




ABUSU IKASTOLA

Pontoi bidea, 20
48004 Bilbo
Tfnoa.: 94 433 92 03
Faxa: 94 433 35 23

KURUTZE dantza taldea

LEZAMA
Tel.: 94 455 64 64

"Jai zoriontsuak
ospatu!!"



perro kalea, 1.
BILBO